

URMENDI FESTAREN HARIRA OHARRA

Kaixo familia, zer moduz?

Urmendi eguna ospatu ohi dugun data gerturatu zaigun honetan, (maiatzeko azken igandea) ohartxo hau prestatu dugu, zuei, gure erabakiaren berri emateko.

Gogora ekarri beharrea gaude, festa hau, batetik, gure Haur Eskolako komunitatearen arteko (familiak, irakasleak, sukaldariak) harremana indartze aldera sortu zela eta bestetik, Oiartzun herriari festa eskaintzeko.

Egunean bertan, Urmendin, giro paregabea eta berezia izaten dugu eta festaren antolaketa lanetan ere zer esanik ez, elkarlanean aritzen baikara guztiok (familia eta haur eskolako langile).

Aurten ordea, osasun egoera hau medio, ezin izan dugu antolaketan aritu eta eguna bera ere ezin izango da ospatu. Bizi dugun egoera honen ondorioetako bat ikasturte honetako Urmendi eguna ezin egin izatea da. Baina tira, aurtengoz horrela beharko du eta kitto. Izango da aukera aurrera begira, Urmendi egunak antolatu eta ospatzeko. Seguru aurtengo etenaren ondoren, inoiz baino gogotsuago helduko diogula hurrengoari!

Argi duguna da gure festa ez dela sare sozialengatik ordezkagarria, festaren helburua guztiz galduko litzateke: elkarlana sustatzea, haur eskolako komunitatea osatzen dugunon arteko harremana indartzea, gure haur txikiengan pentsatutako festa parte hartzailea sortzea, festa herriratzea eta herriko familiei atea irekiz egun paregabea eskaintzea ...

Horrela ba, aurtengo Urmendi eguna ospatzeko festarik ez dugu izango. Baina seguru, momentua iristean, datorren ikasturtekoa antolatzeari gogotsu eta ilusioz ekingo diogula.

Besarkada estu bat Urmendiko langileen partez eta laster arte!

Ongi izan,

Urmendi Haur Eskolako langileak

2020ko maiatzak 26